

Gero eta enpresa gehiago ari dira eskaintzen telelana egiteko aukera.  
Dena ondo joateko eta segurtasuna bermatzeko, zenbait neurri hartu behar ditugu.

### Kontuan izan beharreko faktoreak



### Gomendioak



#### Bitarteko teknologikoen erabilera enpresan

Ezarri langileek zer egin dezaketean, eta zer ez, enpresarenak diren gailuekin eta sistemekin (mugikorrak, ordenagailu eramangarriak...).

#### Langilearen beraren bitartekoak

Norberaren bitartekoak erabiltzeari buruzko politika bat ezarri, segurtasun-betekizunak barne.



#### Banakako erabiltzaileak

Erabiltzaile generikoak baztertu, segurtasunagatik. Gainera, pasahitzek sendoak izan behar dute, eta iraungipen-data eduki. Ahal bada, faktore bikotzeko sistema bat inplementatu behar da.

#### Eguneratzeak

Zerbitzarien, ordenagailu eramangarrien eta mugikorren sistema operatibo guztiek eguneratuta egon behar dute, asmo txarreko hirugarrenengo batek balia lezakeen segurtasuneko zaurgarritasunik egon ez dadin.



#### Lankidetzeta-lanabesak

Dokumentazioa digitalizatu, langile guztiek eskura izan dezaten, eta komunikazioa eta proiektuen kudeaketa errazagoak izan daitezzen.

#### Hodeia

Web-orri baten bidez, eta egiaztatze sendo baten edo egiaztatze-faktore bikoitz baten bidez (adibidez, token softwarea telefono mugikorrean, SMS bat, e.a.) Citrix, VMware eta halako atarrietara sartzeko aukera izatea hodeian; horrek aukera emango lieke sistema korporatiboetan sartzeko.





### Ezabaketa segurua

Kontu handiz erabiltzekoa den informaziodun artxibo guztiak modu seguruan ezabatu beharko lirateke erabili ostean, ezabaketa segurua egiteko lanabes baten bidez.

### Segurtasun-kopiak

Erabiltzaileen informazioaren segurtasun-kopiak egiteko aukera ematen duten sistemak inplementatu.



### Suebaki pertsonala

Baimendutako komunikazioak besterik ahalbidetzen ez dituen suebaki pertsonal bat erabili.

### Zifratzea komunikazioetan

Sare pribatu birtualen (PVN) bidez konektatu ingurune korporatiboarekin.



### Gailuak zifratzea

Gailu guztiak zifratuta egon behar dute, galtzekotan edo lapurtzekotan informaziora iristea zailtzeko.



**Intzidenterik izatekotan...**  
lehenbailehen jakinarazi antolakundeko sistemaren arduradunari.